

Heri Aldizkaria


Otamotz

1999ko azaroa 52. alea



Agiñatik herrira begira

ZUMARRAGA



**18 ETXEBIZITZAKO ERAIKINA, LOKALAK ETA GARAJEAK
A-31 AREA - BARREIROS (LEGAZPI DORRETXEAREN ONDOAN
ZUMARRAGA**

LAISTER HASIKO GARA

▶ **ETXEBIZITZA BIKAINAK**

▶ **LOKALAK**

▶ **GARAJEAK**

INFORMAZIOA: 943 76 11 23

**CONSTRUCCIONES
MAURICIO ARREGUI, S. A.**



1965ean Urretxuko txistulari taldeari ateratako argazkia dugu ikusgai hilabete honetan. Santa Zezilia eguna gainean dugu eta argazki aproposa, beraz. Hona hemen argazkian ateratzen diren gehientsuenen izenak: José Pérez, Lasa, Bixkai, Liza, Roberto Salegi, Arizti, Daniel (udaltzaina), Joxemari Zaldua, Arantxa Salegi, Anton Mari Salegi, Josetxo Rodriguez, Ignazio Mari Salegi eta Ignazio Barrio.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Elektrigintza, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 943 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Iñaki Campos ormaiztegiarra garaile buzkantza lehiaketan

Iazko moduan, José María Busca Isusiren omenezko buzkantza lehiaketa Santa Lutzia egunaren aurretik antolatu da merezi duen sona emateko. Hilaren 7an inguruotako harakinak Zumarragako Euskadi enparantzan bildu ziren euren buzkantza onenak eskuartean zituztela sariaren bila. Goizean epaimahaikideek zein bertara hurbildutako herritarrek buzkantzak dastatzeko aukera izan zuten eta bitartean lagun talde batek motozerrak erabiliz egurrezko tresna eta irudi ezberdinak egin zituen ikusleen harridura sortuz. Ondoren hauen lanak (aulkiak, basurdeak, lorontziak...) ikusleen artean zozketatu ziren eta egurrezko basurdea etxera eraman zuenak ere ziur familiako en harridura sortu zuela.

Eguerdiko ordubata eta erdiak inguruan buzkantza lehiaketaren sari bana- ketari ekin zitzaion. Lehenengo saria, 50.000 pezeta, garaikurra eta diploma, Ormaiztegiko Iñaki Camposek eraman zuen. Bigarren saria eta beste 50.000 peze- ta, Legazpiko Urzelai harategiarentzat izan



Iñaki Campos, biloba aurrean diploma eskuartean duela.

zen eta aurkezpen onenaren saria Ormaiztegiko Jesus Mari Debak eta Ordiziako Juan Mujikak eraman zuten.

Lehen aipatu bezala, aurtien biga-

rren aldiz buzkantza lehiaketa Santa Lutzia baino lehen antolatzea erabaki da eta jendearen erantzuna ikusirik merezi duen sona ematea lortu dela esan daiteke.

Ostadar Mendi Taldearen XVI. Mendi Astea

Ostadar Mendi Taldeko lagunek igande honetan emango diote hasiera Mendi Asteari Angel Etxeberriaren omenezko haurtzako ibilaldi neurtuarekin. Ibilbidea Euskadi enparantzan hasi eta Gabirian amaituko da eta bertan hurrek hamaiketakoaz gain diploma ere jasoko dute.

Hilaren 22, 23 eta 26rako diaposi- tiba emanaldiak antolatu dituzte Zelai-

Arizti ikastetxeko areto nagusian. Hilaren 24 eta 25ean, berriz, diapositiba eman- diak Urretxuko Kultur Etxean izango dira. Emanaldi hauetan mendizale ezberdinek euren bidaietan ateratako diapositibak era- kutsiko dituzte. Hauen artean azpimarra- garria da hilaren 25eko emanaldia.


Izan ere, Ostadarreko kidea den Juan Mari Gabilondok bakarka zein Ostadar taldearekin aterata-

ko diapositibak erakutsiko baititu.

Azaroaren 27an, larunbata, Ostadarreko kideek batzar orokorra izango dute eta bertan denboraldiaren balorazioa egiteaz gain, zuzendaritza berrituko dute. Mendi Asteari amaiera emateko hurrengo egunean Ebroko mehargunera joan- go dira eta ondoren bazkaria egingo dute.

Irteera honekin aurtengo denboraldiari amaiera emango diote. Ostadarreko lagunek urtean hamaika irteera egiten dituzte, hauetatik gehienak igan- detan eta beste batzuk aste buru oso- koak izaten dira.

Ostadar mendizaletasunak elkartu zituen zenbait lagunek sortu zuten 1982an eta ordutik hona herrian ere mendizaleta- suna suspertzeko lan itzela egin dute. Honen adibiderik onena hasierako 40 bazkideetatik 165 izatera pasa direla da. Hala ere, eurek antolatutako mendi irtee- retan parte hartzeko ez dago bazkide izan beharrik. Beraz, badakizue, Euskal Herriko zein inguruotako bazterrak eza- gutu eta bide batez kirola egiteko aukera bikaina duzue Ostadar Mendi Taldearen eskutik.



Ostadarreko lagunek giro alaiean burutzen dituzte hilero mendi irteerak.

Udazkeneko usain eta zaporeak Kabian

Zumarraga erdi-erdian dagoen jatetxe hau sartu da udazkenean. Izan ere, eguraldiarekin batera gehien aldatzen diren gauzetako bat janariak prestatzeko erak dira. Alde batetik, jaki berriak sartzen direlako eta bestetik jateko prest mahaira inguratzen garenok janari fuertea-goak eskertzen ditugulako.

Kabian prest dute udazkeneko karta eta horri buruz bertako sukaldari batekin hitz egin dugu. Plater hauek prestatzen hiru sukaldari aritzen dira. Hirurak ere Euskal Herriko sukaldaritzako eskoletan ikasiak eta hainbat sukalde ospetsutatik pasa ondoren (Sukaldeko arduraduna Subijanaarenean, Bilboko Ercilla hotelean etab. ibili da.) herrian ditugu beraien jatetxean lanean.

Eskolako sukaldariak berritzaileak omen dira, baina Kabian diotenez, betiko sukaldea omen da formak aldatuz. Udazkeneko karta berritik menu bat osa dezala eskatu diogu sukaldariari, ea zer iruditzen zaiuzuen:

“Edateko txakolina aukeratu nuke. Jatordua hasteko, txahal mingaindun entsalada langostino eta trufa olioazpinarekin lagunduta; lehenengo plater moduan, onddo-zopa, mondeju-pastel eta foierekin; ondoren, lupia labean erreta, txibiekin eta tomate-konpotarekin. Aurrera segitu arretik, edariz aldatu eta 90. urteko erreserba ardoa aterako nuke plantxan gorritutako orein-solomoari ongietorria egiteko; eta gozoen orduan, gaztaina moussea ondo legoke, txokolate mikatz saltza epela eta bainilazko izozkia lagun dituela.”

Zuk zeuk saiatsu nahi duzula horrelako platerekin? Horretarako ere aukera emango dizugu ba. Hona hemen lehen aipatutako plater baten errezeta: Onddo-zopa,



Bikendi, Elbira eta Jaione jatetxeko jangelan.

mondeju pastela eta foierekin.

Onddo zopa, osagaiak: tipula, onddoak, baratxuria, haragi-salda eta irin pixka bat. Tipula eta baratxuria sueztitu, onddoak bota dena egin arte. Irina gehitu eta azkenik haragi-salda gehitu. Dena turmisetik eta ondoren txinotik pasa eta gatz-puntua ziurtatu ondoren nahi duenak esnegain eta gurin piska bat bota diezaioke gustuko puntura iritsi arte. Mondeju pastela: Osagaiak: mondeju bat, sei arrautza eta litro erdi nata. Mondejuak hestetik atera eta esnegain eta arrautzarekin nahastu. Dena baño marian 40renbat minutuan eduki.

Kabiako aurkezpena: platerean pastel zati bat jarri gainean plantxan gorritutako foie zati bat duela eta bertan zopa zerbitzatu.

Saiatu aurretik Kabian probatu nahi baduzu edo besterik gabe udazkeneko jakiekin gozatu nahi izanez gero, hona hemen intereseko datu batzuk:

Jai eguna: astearte arratsaldea
Komedorea 60 pertsonentzat
Menua: 1.100 pta
Telefono zenbakia: 943 72 62 74

MASTER HEZKOR
CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandra albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU


Urretxuarrak derbian garaile

Joan zen hileko Otamotz alean ikusi zenuten moduan, Urola Garaiko Bertso Eskolak Gipuzkoako Bertso Txapelketan parte hartzeko asmoa zuen arren, zenbait gaizkiulertu izan zirela medio ezin izan dute. Hala ere, honek ez ditu etsi eta bailaran bertsozaletasuna suspertzeko lanean gogor jarraitu dute.

Urria eta azaroan Urretxu eta Legazpiko bertsolariek bertso-derbia jokatu dute eta joaneko eta itzulerako saioaren ondoren Urretxuarrak suertatu dira garaile. Urretxuarren taldean Asier Otamendi, Gorka Azkarate eta Gorka Ojanguren aritu dira eta Legazpikoan, berriz, Nerea Elustondo, Asier Iriondo eta Joseba Barandiaran. Epaile lanetan Eugenio Lizarralde, "Txino", urretxuarra eta Mikel legazpiarra aritu dira, gai jartzaile Juanjo Sagastibeltza eta aurkezle lanetan Joxemanuel Bereziartua "Bere".

Lehenengo saio arrakastatsua Zumarragako Ama-Lur elkartearen jokatu zen eta bertan legazpiarrak gailendu ziren. Oparo afaldu ondoren bertsolariek lanari ekin zioten eta urretxuarrak entzulegoa alde zutela aritu arren, legazpiarrek hiru puntuko aldeaz irabazi zuten.

Itzulera saioa Legazpiko Izadi-Zaleak elkartearen izan zen. Bertako saioan



Bertsolariak, epaileak, gai jartzailea eta aurkezlea bera ere zeharo konzentratuak.

jende ugari bildu zen, gehienak, joaneko saioan lortu zuten aldeaz garaipena etxean geldituko zela ziurtzat jotzen zuten legazpiar zaletuak izan ziren. Hala ere, urretxuarrak ez ziren kokildu eta markagailuari buelta emateko asmoz lanari gogor ekin zioten. Legazpiarrak ere primeran aritu ziren arren, epaileek, hiru puntu eta erdiko aldeaz, garaipena urretxuarrari eman zieten. Honela puntu erdiz hiru puntuko desabantaila gairiditu eta txapelak buruan zituztela bueltatu ziren Urretxura.

Hala ere, etxera itzuli aurretik garaipena Legazpin bertan ospatu zuten bertako bertsolariekin batera. Ez dakigu poteak galtzailearen kontura hartu zituzten, ezta goizeko ordu txikietan botatako bertsoek maila ematen zuten ere.

Guk, badaezpada ere, Izadi-Zaleak elkartearen burututako itzulerako saioan botatako bertso batzuk besterik ez ditugu bildu bertara hurbiltzerik izan ez zenutenontzat:

Gaia: Barandiaran bertso eskean ibili da eta bildutakoaren artean sobre huts bat topatu du. Otamendirena ote denaren susmoa du.

Sobrea espero nun
nik diruz beteta
ta hutsik bota hidan
jarri ez arreta
ondo pentsatzeko hartu
Otamendi beta,
hauteskundetakoekin
nahastu hintzan eta.

Bertsoak kantatzeko
huen hire plana
tajuik ez zuten bate
aldrebesa dana
sobrea ematen ere
hartu nian lana
bakarrik eman nian
merezi huana.

Azkarate eta Iriondok guztion ahotan egon den Clemente gaitzat zutela zortziko txikian bota zituztenak:

Ile gorria dago,
bankilloan tente
jokalariei oihu
eginez potente
ea Errealetik
badoan Klemente
lenago ere bagendun
makina demente.

Azkarate

Nik Klemente nahi nuke
hementxe omendu
bere karguan hori
behar da mantendu
inola ere ez behintzat
hor bertatik kendu
ta gainera euskaraz
ongi egiten du.

Iriondo

Ojangurenak, Iriondoren alkandora gaitzat zuela.

Ari naizela, ari naizela,
horri begira jarrita
koadrozkoa ta koloreduna,
degu erabat polita
ay Iriondo lortu dezunez
alkondara horrekin zita
seguruenik izango gendun
bere aitona utzita.

Ahotsa sarri ez da ibiltzen
guk desio bezain peto
errima eta neurrian ere
ez nabil oso konpleto
ta nerbioak sarritan dantzan
desafioak tarteko
bertso batek zer gehio behar du
zerbait txarra izateko.

Nerea Elustondo



Zer dugu horrelako bekoskoarekin egoteko **Mikel**? Lasai, zure urtebetetze egunean opari bikainak jasoko dituzu eta! **Zorionak** etxeko gutzientz izenean.



Arantza horrelako jende irrifartsua behar dugu gero aldizkarian ateratzeko! (Ez alban dituzun bi horiek bezala). **Zorionak** eta segi orainarte bezain irrifartsu.



Danel nola utzi diezaiokezu argazkia izeba Aintzani? Ez al duzu oraindik argazkiak edonori uzteko duen ohituraren berri? **Zorionak!**



Idoia, zapia buruan eta ibili munduan! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna familiakoekin partez.



Joxe urteak aurrera doaz, baina oraindik ere alproja galanta egina zaude! **Zorionak** etxeko gutzientz izenean.



Marian, Otamotzen azaltzeko argazkirik utzi nahi ez zenigunez, azkenean tximuari begira atera zizuten hau jarri behar izan dugu. **Zorionak!**



Argi ibili **Mikelekin** hortzak estutu ditu eta! Lasaitu zaitetz Mikel ez da horrenbesterako izango eta. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Olaia beti bezala zaude, ez al zara zahartzen? Aurten zu zorientzeko iazko argazki bera utzi digutelako izango ote? **Zorionak** eta ondo ibili!



Aitor udaletxetik, musika eskolatik ala futboletik al hator? Hire urtebetetze egunean behintzat atsenden txiki bat hartzeko astia izango al duk... **Zorionak!**



Enrike irrifarre maltzur horrekin, zuegandik gauza onik espero al dezakegu? Badaezpada ere argi ibili beharko gara. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Iker, ondo zegok Arnyko bazkide sortzailea izatea, baina zapaturen batean gorputzari lasaitua eman beharko diok! **Zorionak** eta ondo ibili!



Hara zein gustura dagoen aita bere seme alabekin! Ama, ordea, nahiko larri ibiliko da hirurentzat oparia aurkitu ezinik! Hala ere, lasai egon zaitetzte, oraingon ere zuen gustuko zer edo zer aurkituko du eta. **Zorionak Julian, Amaia eta Mikel** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Maritxu nora zoaz zeharo seria Bartolokin joateko alda aurpegia.

Zorionak eta Bartolorekin edo familiakoekin edan ardo txuria.



Mila durokoa kalean aurkitu duzula dirudi, hori alaitasun aurpegia! Hala ere, azkar xautuko dituzu, ordea, katekesi-koak gonbidatu behar badituzu! **Zorionak!**



Behatza ahoan sartu eta lotsati aurpegia jartzen duzun arren, bihurri xamarra izanango zarenaren susmoa dugu. **Zorionak Paulo** eta atera ezazu behatza ahotik motel!



Azkenean gogoratu gara eta aurten Otamotzen ere zoriandu zaitugu. **Zorionak Ander** eta ondo pasa urtebetetze eguna gurasoen partetik.



O Peio, Peio... irrifar egin ezazu gehio! Emazteak prestatuturiko bazkariak kalte egin dizula dirudi, motel! **Zorionak** etxekoekin partetik.



Ez duzu ez zorte makala **Begoña**! Olentzero heldu aurretik ez ditu edonork opariak jasotzen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna etxekoekin partez.

Argi ibili Etxaniztarrekin! Inor beraiekin sartu gabe aurpegi hori jartzen badute, zer ez ote dute egingo hasarretzeko arrazoirik emanez gero! **Zorionak Asier eta Mielanjel** zuen arreba kuttunaren partez. (Asier, zure urtebetetze egunean etxera bidali zenituen pastelak oso onak zauden, baina datorren urtean pastelekkin batera bazkaltzera ager zaitetz).



Hori da hori zorian-tasun aurpegia mutilarena! Ez da harriztekoa, chiztariantzat hau baita urteko sasoirik onena. **Zorionak Ibon** eta utzi txoriei lasai egon!



Alaitu ezak aurpegi hori **Iñaki**! Hire urtebetetze egunean aurpegi horrekin ateratzen baldin bahaiz lagunak etxera bidaliko dituk! **Zorionak!**



RENEDO argazkiak
Jarunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
 Labeaga 52-54 F URRETU
 ☎ 725682 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
 ☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

LASKURAIN

Emakumezko zein gizonzkoentzat arropa

Iparragirre ibilbidea, 10 ☎ 943 72 11 05
 Legazpi, 8 ☎ 943 72 07 57
 ZUMARRAGA

nextlingo
 school of English

Bertsolari Txirrita, 16 Iparragirre, 8
 20017 Altza 20700 Zumarraga
 Donostia Gipuzkoa
 Tel./Fax: 943 39 43 77 Tel./Fax: 943 72 65 60
 nextlingo@hotmail.com



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 72 58 28
 URRETU

Trafikoaren egoera herriotan

Azkenaldi honetan gure bi herriotan autoz ibili eta aparkatzea gero eta zailagoa dela dirudi. Sakonki aztertu beharreko arazoa da eta seguraski errua guztiona izango da. Bi udaletan hartutako hainbat neurri, beharbada, okerrak izango ziren; baina askotan herri barruan ibiltzeko

autoa hartzeko dugun ohiturak ere ez ditu gauzak batere errazten.

Arazoa aztertzeko bi herriotako udaltzainengana zein kaleko jendearengana jo dugu eta hona hemen euren iritzia.

ZUMARRAGAKO UDALTZAINGOA



Gure herrian trafiko arazorik ba al dago? Galdera honi erantzun zuzena ematea oso zaila da. Hasteko geure buruari galdera hau egin behar diogu: gure ustez zer dira trafiko arazoak?

Alde bakar batetik ikusita, gure ustez, trafikoak, edo hobeto esanda ibilgailuek, bi kalte mota sortzen dituzte, alde batetik oinezkoek eta beste aldetik gidariek jasan behar dituztenak.

Esandako azken kalte mota honi dagokionez, orokorrean, trafiko arazoa ez dela momentuz kezagarria esan dezakegu. Hala eta guztiz ere, arazoa areagotzen ari da. Beraz, horrela jarraituz gero, arazoa larritu egingo da. Sarritan ikusten dugu, hainbat ibilgailuren erabiltzaileek zirkulazioa oztopatuz aparkatzen dutela. Eta kasu gehienetan denbora laburrerako utzi behar dutenez, edozein tokitan aparkatzen dute, nahiz eta jakin ez dela leku aproposa edo beste erabiltzaileentzat erreserbatuta dagoela (autobusen geralekuak, elbarrientzako erreserbatutako lekua, garajeen aurrean, zamalanak egiteko lekuetan, etab.)

Oinezkoei sortzen dizkieten kalteak zeharo ezberdinak izaten dira, eta kasu honetan bai, arazoa ia kezagarri bihurtzen ari zaigu. Badaude gure herrian kale batzuk non oinezkoek ez duten espaloitik pasatzerik eta horrek benetan kezkatu behar gaitu.

Arazoen arrazoiak ezberdinak dira, baina nagusiak bi hauek:

1. - Herriaren ezaugarri fisikoak: Kokapen geografikoaren arabera ezin da herri zabal eta laua izan. Beraz egoitzek konzentratu egon behar dute metro karratu gutxitan. Hori dela eta, nabaria da kale batzuk ez daudela prest momentu batzuetan pasatzen diren ibilgailuen kopururako edo zaila dela aparkalekuak aurkitzea. Izan ere herria txiki samarra geratzen ari zaigu.

2. - Herriarren, gidari nahiz oinezkoen, ohiturak: Dugun bizimoduan jarrera desegoki batzuk hartzen ari gara. Gure ustez, gehiegi erabiltzen dugu kotxea (nahiz eta ibilbide motza izan), presaka gabiltza beti, iritsi ezinik, lekutik ahalik eta hurbilen utzi behar dugu kotxea beti...

Bi faktore horiek kontuan hartuz, arazoa konpontzeko aipatutako bi ildo horietan aplikatu beharko ditugu neurriak, hau da, aparkaleku gehiago egin, barneko trafikoari buruz ikerketa bat egin, (kopurua, ibilbideak, leku bakoitzaren beharrak, etab.), auzoei azpiegituraz hornitu...

Baina konpontzen ez den bitartean, gure ustez irizpide bat jarraitzea derrigorrezkoa da, hau da, herrian dauden baliabideak erabiltzeko orduan nork duen lehentasuna jakin behar da: Eta hemen guk behintzat ez dugu inolako dudarik, lehentasuna oinezkoek izan behar dute, gero zerbitzu publikorako dauden ibilgailuak, ondoren urritasunen bat duten erabiltzaileen ibilgailuak eta azkenik kotxezale arruntak.

Bakoitzak atera ditzala ondorioak.

URRETXUKO UDALTZAINGOA




Trafikoari buruz hitzegiterakoan esan, aspaldianik dela gure kezka nagusietariko bat, besteak beste egunero bideratu ezin ditugun zenbait kasurekin aurkitzen garelako, batzuetan gure erruz eta gehienetan egoerak bultzatuta.

Gauzak horrela, aspaldian ekin genion lanari eta datu bilketa baten bitartez orain dela lau urte trafikoari buruzko txosten bat egin genuen. 1998ko abenduan, 2. txosten bat egin genuen, oraingo honetan, lanerako baliabide hobek izanik, osatuagoa eta lehenengoaren osagarria.

Txosten honen bitartez garbi ikusten da trafikoari buruzko plangintza dela herriak behar duena. Plangintza serioa, non zenbait gai Zumarragako herriarekin elkarlanean egin beharko diren, non gure herriko zenbait puntu aztertu beharko diren: Herriko ibilbide egitura nagusia, zama-lanetako iharduera erregulatu (horretarako ezinbestekoa ikusten dugu dendariekin elkartzeari), seinalizazio egoki bati ekin, aparkaleku eskasiari irtenbideak bilatu, beste zenbait arazo zehatzi erantzuna eman eta horrekin batera, behar diren baliabide pertsonalak zehaztu (zer Udaltzaingo mota nahi den) eta materialak (plangintzari aurre egiteko modukoak) jarri eta azkenik plangintzaren jarraipena egin.

Garbi ikusten dugu, ezer egin gabe pasatzen den egun bakoitzeko egoerak txarrera egiten duela, irtenbideak gero eta zailagoak direlako. Horregatik, Urretxuko Udaltzaingoak sartu berri den Udal korporazioari trafikoaren arazoa seriotasunez aztertzeko eskatu dio, horretarako behar diren baliabideak jarritz. Amaitzeko, lerro hauen bitartez, herriko jendea animatzen dugu, beldurrik gabe, trafikoari buruz dituzten kezkek, iritziak, irtenbideak eta bestelakoak azaldu ditzaten udaletxe honetan, asteazkenero (arratsaldeko 7etatik aurrera) izaten den Hirigintza Batzordean. Guk bitartean lanean jarraituko dugu beste egoera bat lortu arte, ez gaudelako batere ados egungo egoerarekin.

**Zer iritzi duzu bi herriotako trafikoari buruz?
Arazoak izaten al dituzu autoan herrian ibili eta
aparkatzeko?**



Victor Enrique

Normalean ez dut autoz ibili eta aparkatzeko arazorik izaten. Hala ere Labeaga kalean askotan arazoak izaten dira. Asteburuetan gauza asko aldatzen da eta aparkatzeko arazo gehiago izaten dira.




Felix Mencias

Nahikoa arazo izaten dira, bai, herriotan kotxez ibiltzeko. Nire ustez kale gehiagotan norabide bakarra jarri beharko litzateke. Bestalde, aparkaleku falta badagoela ere uste dut.




Tere Sarasola

Trafiko arazo handiena Labeaga kalean dagoela uste dut. Aparkalekuei dago-kienez, gutxi daudela uste dut, baina guk garajea dugunez ez dugu arazorik.



Ventura Fraile

Ni Leturias auzoan bizi naiz eta garajea dut, baina herrira kotxez jaisten naizenean ez dut aparkatzeko lekurik erraz topatzen. Lotsagarria da.



**BILINTX
LIBURUDENDA**

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax:673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: **72 02 55**
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ **72 36 52**

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ **72 41 61**

Esna hadi tx



Zumarragako Antziñako Ama txistulari taldea.

Igande goizeroko txistularien kalejira ohiko bihurtu da iada denontzat. Ez dago imaginatzerik txistu doinuak blaituko ez duen iganderik. Honek jaiero sortuko ditu sentipen gozo nahiz gaziak ohetik esnatu berrientzat.

Txistularion kalejira, "goiz-deia", "pasakallea" edo "goiz-ereserkia" ere deitua, astero egiten den ekitaldia denez, badirudi herri orotan ematen dela. Baina ozen esan behar da ez dela horrela. Izan ere, herri gutxitan izaten dira igandero-igandero txistularien kalejirak eta are gutxiago gure herriotan bezain talde jendetsuak.

Zumarragako kalejirak badu noski bere historia eta hogeigarren hamarkadaren haserara lekutu beharra dugu begirada pasakallearen hastapenei so egiteko.

20. HAMARKADAN HASI

Garai hartan izan genituen ohiturari hasiera eman zioten Pascual Okariz, "Tximista" eta Sanpedro eta udalarekin igande goizero kalejira egiteko konprometitu ziren. Ondoren, lekukoa hainbat saiakera eta gero "Antziñako Ama" Txistulari Taldeak hartu zuen eta gaur arte hor gabilta burubelari. Aipatzekoa bederen, Esteban Barrena bezalako gizonen meritua, taldearen hastapenetik igande goizeroko deiar

ez baitio huts egiten hain kuttuna duen txistua jotzeko.

Gaur egun Zumarragako txistularion kalejira jendetsua eta gazte jendez beterik ageri zaigu eta kalejiraren etorkizun oparoaren seinale da.

GAUPASAZALEAK ENTZULE

Aipatu beharrean gaude, pasakallea gizar-te ohituren lekuko ere bihurtu dela, izan ere, lehen herria esnatzea bazen xedea (orain ere bada) gaur ohera joateko abisua da askorentzat. Parrandazale eta gaupasero amorratuek martzianoak bailiren nola begiratzen diguten ikusi besterik ez dago. Hala ere -ez ditzagun gauzak nahas-horrek ez du esan nahi larunbatetan txintxo-txintxo eta umil-umil hamarretarako ohera joaten garenik hurrengo goizean txistua jotzeko. Zenbat aldiz -eta zenbat gehiago- joan ote gara bi edo hiru ordu soilik ohean emanak. Txistuarekiko grina eta konpromiso amaigabeak besterik ez du azaltzen tamaina horretako balentria.

Askotan gainera udala eta herri-tar askoren aldetik ez da errekonozitzen igande goizero joateak zer suposatzen duen, sakrifizioa, entsaioak eta beti konpromisoa. Tamaina horretako esfortzua ez du herri honetako musika talde batek ere egiten eta ongi legoke denek onartuko balute.

Azaroarekin batera musikarien zaindariaren eguna, Santa Cecilia hain zuzen ere, heltzen da. Herri gutxitan egongo dira gure bi herriotan bezainbeste musikari eta musikazale: bi herriotako musika eskoletan, abesbatzetan, txalaparta taldean... lan itzela egiten da urte guztian. Argi dago denek ere izango dutela euren ihardueraren inguruan zer esan eta zer kon-tatu. Hala ere, denekin batera

Bestetik, goizeroko parrandazaleekin topatzeaz gainera, beti dugu Iruñea-Donostia egiten duen Pesa autobusa bide-lagun, mendira doazen txomingeroak, txistularien amak balkoietan euren seme-alabei so eta txistua lokaletik hartu ahal izateko giltzak uzten dizkiguten municipal jatorrak. Hala ere, sekula ez zaigu pasatu Legazpiko txistulariei behin gertatutakoa, izan ere, igande batean kalejiran zihoazela Ertzaintzaren bi kotxe-patruila atzean jarri eta ertzain inozente eta ezjakinek honako abisua eman zuten basera: "jóvenes sospechosos con instrumentos autóctonos invaden la calzada". Deigarria zinez.

Kalejira igande goizetako arima grisen gozagarri da, lurraren arnasa eta herria bizirik eta kantatzen badakiela azaltzen duen taupada xamur eta bizia. Goizeroko txorien kantu inozentearekin batera gau-txorien etxeratzea edertzen laguntzen duen artisau logaleen balada. Eta hurrengo igande goizean jarraituko dugu musika-notak elkarrekin leun josiz herriaren belarriak laztantzen.

Mikel Guridi
Gorka Quevedo
Josu Aztiria

Antziñako Ama Txistulari taldeko kideak.

txistulariekin!

ezin egon eta Zumarraga eta Urretxuko txistulari taldeetako lagunekin hitz egitea erabaki dugu.

Urtean zehar ekitaldi ugari dituzten arren, oraingo honetan igande goizero egiten duten kalejiraz aritu gara. Izan ere, herritar askok ohitura hau Euskal Herrian zeharo zabaldua dagoela uste dezakeen arren, herri gutxitan dugu igandero txistuaren soinu alaiez esnatzeko aukera.

Urretxuko txistulari taldeak ere igande goizero kalejira eskaintzen die herritarrei eta berri zabalagoa izateko Jose Mari Lasarengana jo dugu. Berak ere, Zumarragakoek bezala, asteroko kalejira oso herri gutxitan egiten dela esan digu. Gure bi herriotaz gain Donostia, Tolosa eta Oñatin ere ateratzen omen dira, baina herri hauetan 6 lagun inguru soilik aritzen dira eta udalak ordaindu egiten die.

Legazpin ere ohiturak oraindik bizirik omen dirau, baina uda garaian soilik aritzen dira. Urretxuarrak, aldiz, abuztuan eta garizuma garaian izan ezik urte osoan zehar aritzen dira. Udalarekin 60 hamarkadan sinatu zuten kontratuan, Garizuman musika jotzea debekatzen zuen ohitura errespetatzen zuen klausula sartu zuten eta egun oraindik errespetatu egiten dute. "Egun ohitura hau errespetatzeak ez dakit zentzu handirik duen, baina guri atsedean txiki bat hartzeko oso ondo datorkigu" dio Jose Mari Lasak.

Iganderoko kalejira hau da urretxuarrak txistularien ihardura nagusia. Hala ere, San Juanetan, Santa Zezaliatan eta herriko gainontzeko jaietan ere herriko kaleak alaitzen dituzte.

ARRATSETAN

Gerra aurretik eta gerra ostean ere Joxe Gabilondo txistuan aritu bazen ere, 20 urte inguruko etenaldiaren ondoren, Santi Gutiérrez eta Joxe Pérezek lanari berriz ekin zioten udalaren eskaerari erantzuna emanez. Hauek hasitako lanari beste batzuek ere jarraitu zioten eta garai batean 40 lagun inguru ere aritu ziren. 60 hamarkadako lehen urteetan, gainera, goizeko kalejiraz gain, arratsaldean ere dan-

tzarako zenbait pieza ere jotzen zituzten bi astetan behin musika bandarekin txandaka.

Santi eta Joxek urte askotan zehar hutsaren truke egindako lan bikainak bere fruituak eman zituen eta haiek garai batean hasitako lanak bizirik dirau. Egun Urretxuko txistulari taldean 20 lagun inguru dabilta eta bi taldetan banatzen dira bakoitzak bi astetan behin soilik jotzeko. Txistulariak udaletxetik irteten dira igande goizero eta Barrenkale eta Nekolaldetik pasaz Ipeñarrietara joan ondoren, udaletxera bueltatzen dira.

LAU BETEBEHARRAK

Jose Mariren esanetan "Urretxuko kaleen kokapena dela eta, nire ustez Aparizioko bizilagunak dira gu entzuteko aukera ez duten bakarrak. Gustura aritzen gara, baina esan beharra dago ia ezeren truke eman egiten dugula, izan ere, udaletxearen laguntzak urtean txango bat egiteko baino ez digu ematen. Nik esaten dudana moduan lau lan betetzen ditugu txistulariok igande goizetan: iratzargailu lana, egutegi lana (jendeak gu entzutean igandea dela baitaki), erloju lana eta eguraldi-gizonaren lana (ateri denean soilik ateratzen baikara)."

MASOKISTAK OTE?

Konpentsazio eskasa jasotzen badute ere, txistulariak ez dira udalaz kexu "garai batean lokal falta zela eta tirabirak izan genituen, baina orain entsaiatzeko lokala behintzat badugu. Hala ere, nire ustez Santik 40 urtetan zehar egindako lana nolabait eskertu beharra dago, hutsaren truke 200 pertsona ingururi txistua jotzen erakutsi baitziren. Egun oraindik ere Santiren ikasleak aritzen badira ere, gehienek musika ikasketak dituzte eta gazte hauen lana ere eskertzekoa da. Askotan parranda egin ondoren konpentsazio materialik jaso gabe igandero goiz jaikitzea azpimarragarria da, gizarte materialista honetan gero eta zailago da honelako portaerak ikustea. Masokista xamarrak garen susmoa ere badut".

Baina jendearen esker ona jasoko dute behintzat... "noizbait lagun bat txantxetan kexuka ageri zaigu: bezperan parranda egin ondoren ez diogula lo egiten utzi... Behin emakume batek ur balde bat ere bota zigun! Hala ere, herritarrek igandetako kalejira atsegin dute orokorrean eta ohitura mantentzea eskertzen dute".



Urretxuko txistulari taldea, Santi Gutierrezen zuzendaritzapean, zilarrezko ezteiak ospatuz egindako kalejiran (1985).

Zumarragako gazteak Ecuadorgo eskola baten alde lanean



Ecuadorgo Salinas herrian josten irakasteko eskola bat dago bertako misolarien ardurapean. Hauek balore kristauak zabaldu eta gazteak jantzigintzaren industrian lan egiteko prestatzeaz arduratzen dira, euren herriaren eta familien egoera ekonomikoa hobetu ahal dezaten. Baina eskola honetako hormak ez daude guztiz itxita eta sarritan tresneriaren lapurretak jasaten dituzte. Hau dela eta, hilabete honetan Zumarragako denbora libre eta sendotzako gazteek, monitore eta katekisten laguntzaz, hainbat ekintza antolatu dituzte eskola honetan horma berriak eraiki ditzaten 2.100.000 pezeta lortzeko.

Baina, nondik-nora erabaki dute Ecuadorgo herri honi laguntzea? Zumarragako parrokoiko monitore eta katekistek gazteek gurea baino herrialde txirogoen errealitatea ezagutu eta hauen alde lan egitea nahi zuten. Horretarako laguntza

eskatu zieten Elizbarrutiko misioei eta hauek Salinas herriko eskola honen beharren berri eman zieten. Monitore eta katekistek proposamena gazteei luzatu eta hauek oso gogo onez ekin zioten lanari. Azken hilabeteotan lan gogorra burutu ondoren, azaroan eskola honi laguntzeko antolatutako ekintzez gozatzeko aukera izango dugu.

**Hitzaldiak,
komertzio libreko
denda bat eta
kontzertua
antolatu dituzte**

Hasteko, hilaren 12an Eduardo Sánchezek "Merkataritza bidezko eta solidarioa" hitzaldia eskaini zuen La Salle

ikastetxeko areto nagusian. Bidezko merkataritza Hego hemisferioko ekoizleekin ingurugiroa eta ingurune kulturala errespetatzen duten merkatal erlazio zuzenak ezartzean datza, prezioak beraiekin finkatuz eta honela beraien bizi kalitatea ziurtatuz. Egun Europan bidezko merkataritzan oinarritutako 3.000 denda baino gehiago daude eta honek ondorio onuragarriak dakartza Hirugarren Munduko 5 milioi pertsonentzat. Honetan oinarriturik Zumarragako gazteek denda solidario bat zabaldu behar dute azaroaren 27tik abenduaren 19ra bitartean Helena Arbuluk utzitako lokalean, Legazpi kalean, Salinasko eskolarentzat dirua ateratzeko. Bertan Hirugarren Munduko elikagaiak eta eskulanak saltzeaz gain, Hirugarren Munduko haurren aitabitxiak izateko aukera eskainiko duen standa jarriko dute eta Hirugarren Munduko haurrei bidaltzeko eskola materiala jasoko dute.

Hilaren 26an, arratsaldeko 7ak eta erdietan eta Legazpi ikastetxean ere, Periko Etxeburuak "Kanpo zorra" izenburupean beste hitzaldi bat eskainiko du. Hegoaldeko herriak iparraldekoek utzitako dirua eta sortutako interesak itzuli ezinik dabilta eta zor honi aurre egin beharrak hezkuntza eta osasunera zuzendutako aurrekontuen jaitsiera dakar. Honen ondorioz, urtero 500.000 haur baino gehiago hiltzen dira.

Bi hitzaldien artean, hilaren 20an, parroikiko gazteek "Gau solidarioa" izenez ekitaldi handi bat antolatu dute Beloki pilotalekuan. Gaueko hamarretatik aurrera Euskal Herriko eta Hirugarren Munduko hainbat herritako kulturak batu egingo dira Salinasgo herriaren alde. Joxe Mari Gabiriak eta Amaia Aranburuk aurkeztuko duten saio honetan, munduko beste txoko batzuetatik Euskal Herrira bizitzera etortako kideek osatzen dituzten bi talde izango ditugu: Iberokanto taldeak Hegoamerikako kantak eskainiko dizkigu eta Afroeskalduna taldeak Afrika aldeko dantzak.

Gau Solidarioan Euskal kultura eta Hegoamerika zein Afrikakoak elkartuko dira



Ezkerraldean ikusten den txabola itxurako eskola da konpondu nahi dena.

Beraiekin batera Zumarragan musika alorrean aritzen diren hainbat talde ere izango ditugu: txalapartariak, Irrintzi dantza taldea, Antzinako Ama Txistulari taldea, txalapartariak eta Secundino Esnaola Musika Eskolako trikitilariak. Huekin guztiekin batera Jon Maia, Jesus Mari Irazu, Iñaki Murua eta Nerea Elustondo bertsolariak paregabeko bertso saioa eskainiko digute. Denbora libre eta sendotzako gaz-

teen nahia pilotalekua betetzea denez, sarrera 600 pezetatan jarri dute. Gainera merkatu libreko dendan erosketaren bat egin edo Gau Solidarioa joaten diren guztien artean Etxeberri jatetxean bi pertsonentzako bi afari zozketatuko dira.

Antolatzaileen esanetan Hirugarren Munduko herri bati laguntzeko Zumarragan antolatzen den lehen ekitaldi handia da honako hau. Lan handia izan omen duten arren, hurrengo batean ere antzeko zer edo zer antolatzeko prest agertu dira. Zumarraga eta Urretxuko herrien erantzuna paregabea izan omen da eta honako lerroen bidez guztie eskerak eman nahi dizkiete: Helena Arbulu eta Luis Arzelusi lokala uzteagatik, Eroskiri kontzerturako sarrerak egiteagatik, Kutxari egitaraua ateratzeagatik, Etxeberri jatetxeari zozketarako afariak doan eskaintzeagatik eta bi herriotako udalei zein herritarrei.

Gogoratu Salinas herriko eskolari laguntzeko kontzertua larunbata honetan izango dela Zumarragako Beloki pilotalekuan gaueko hamarretan. Sarrerak denbora libreko gazteek kalean 600 pezetatan saltzen ari dira, baina bi herriotako denda ezberdinetan eta kontzertuaren egunean Beloki pilotalekuan ere salgai izango dira.



Gau Solidarioaren antolaketaren ardura hartu duten gazteak.

Agiña, berezko izaeradun auzoa



Agiñako elizaren konponketa lanak martxan daude, baina auzoak beste behar batzuk ere baditu.

Gure bi herriotako auzo ezberdinetan jai ugari antolatzen badira ere, ezin ukatu Agiñakoek izaera berezia dutenik. Auzo guztiz euskalduna dugu eta San Martin jaiak honen islada izaten dira. Aurten ere jende ugari bildu da bertan euskaldun giroan bertako jaietz gozatzeko. San Martin egunean, egunari dagokion bezala, meza, bazkari herrikoia eta erromeriaz gain buzkantza dastaketa ere izan da. Hala ere, aurtengo egitarauan ekitaldi nagusia larunbateko trikitilari gazteen txapelketa izan da. Iaz ospatu ez zen arren, aurten inguruotako trikitilari gazteek euren artean lehiatu eta Agiñan sariak jasotzeko aukera izan dute. Jaietara amaiera igandean eman zitzaizkien bertsolari, aizkolari eta trikitilarietara.

Baina Agiña zenbait baserri osatutako auzo euskalduna baino zerbait gehiago ere bada. Egun Zumarragako auzo bat bada ere, agiñarrek ez dute "udaletxe"

beharrak agiñar hutsak sentitzeko. Gainera, garai batean zerbitzu gehienak auzoan bertan zituzten. Medikuen beharra zutenean deitu besterik ez zuten eta auzoko haurrentzako eskola ere bertan zuten. Gure bi herriotara kanpotik lanera etorritako jende asko ere hasiera batean Agiñan hasi zen bizitzen eta euren seme-alabek bertako eskolan jaso zituzten lehen

Frontoi txiki bat eta taberna dira agiñarrek auzoan ikusten dituzten beharrak

ikasketak. Hala ere, euskarari gogor eutsi zioten eta egun ere auzokoen arteko harremanak euskara hutsez ematen dira.

Duela hamar urte inguru, daki-zuen bezala, agiñarrek Azkoitiko udalaren babesean bizi ziren. Hala ere, gertutasuna dela eta Zumarraga eta Urretxura askoz gehiagotan hurbiltzen zirela ikusirik, Zumarragako udalaren babespera pasatzea eskatu zuten. Zumarragako udalak proposamena begi onez ikusi zuenez, aurrera atera zen. Betidanik Agiña zumarragar eta urretxuarrok sarritan bisitatu dugun auzoa izan bada ere, orduetik hona agiñarrek lotura berria izan dugula esan daiteke. Honela, badakigu agiñarrek aspalditik elizaren konponketa eta frontoi txiki bat erakitzeke nahia zutela. Elizaren konponketa lanak hasiak daudela ikusirik, agiñarrek auzoari buruz hitz egitea erabaki dugu.

Beraien esanetan elizaren konponketa lehenbailehen burutu beharreko lana zen, erortzeaz baitzegoen. Horretarako Zumarragako udalak dirulaguntza eskaini die, baina agiñarrek beste eskakizun ba-

tzuk ere badituzte. Agiñako lagunekin hitz egin genuen egunean bertako elkarte auzolanean margotzen ari zirela ere ikusi genuen eta orain eliza barruko konponketak egin eta honen eta elkartearen arteko lursailen frontoi txiki bat eraiki nahi lukete. Honek bertako gazteei eta gure bi herriotatik hurbiltzen direnei bertan pilotan jokatzeko aukera eskaintzeaz gain, festetan zerbitzu aparta eskainiko luke. Izan ere, egun, eguraldi txarra eginez gero antolatutako ekintza guztiak elkartearen edo elizan burutu behar dituzte eta bertan ez dago hurbiltzen den jende guztia-erentzat adinako lekurik.

Bestalde, duela urte batzuk arte Agiñan taberna bat ere bazegoen eta agiñarren asmoa kanpotik auzora hurbiltzen direnentzako berriro ere taberna zabaltzea da. Hala ere, etxearen jabeak ez daude hau saltzeko prest eta agiñarren ustez udalak bitartekari lanak egingo balitu errazagoa izango litzateke berriro ere etxe hau taberna bezala erabiltzea. Taberna zabaldu bitartean igandetan Oleta elkarte kanpotarrentzat zabaldu eta hamaiketakoak ematen dituzte, baina tabernak eta frontoiak auzoari bizitasun

berria emango lioketela uste dute. Hau dela eta, Zumarragako udalaren laguntza ezinbestekotzat jotzen dute; bai zuzenean dirulaguntza emateko bai behar den lekuetan eskakizuna egiteko.

Dena den, Zumarragako udalaren babespera pasa zirenetik eman den aldaketaz ez dira kexu eta zenbait aurrerapausu eman direla diote: baserrietako zenbait bide konpondu dira, argia jarri, buzoiak... Orain frontoia eta taberna beharrezkotzat jotzen dituzte eta udalak dirulaguntza eskaintzeko erabakia hartu bitartean agiñarrek kontu korronte bat zabaldu dute auzoan egin nahi diren lan guztietarako dirulaguntza eskaini nahi duen ororentzat. Zuk ere Agiñara bertako paraje ederrez goatzera joateko ohitura baduzu, zure dirulaguntzaren bidez bertan taberna eta frontoiaz goatzeko aukera izan dezakezu. Lortutako diruaz ahal den guztia egingo dute agiñarrek auzolanean, lehenago ere honela lan egiten ohituak baitira.

Agiñako lanetan laguntzeko kontu korrontea:

Kutxa: 2101 0074 61 0110602034



Elkarteko lanetan bezala, gainontzekoak ere auzolanean egiteko prest daude agiñarrak.

CHIARA

**Etixerako lantzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA
Jaurretu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimien
elikadura

Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Burdinezko gizona

Jose txo Mujika, bigarren Ibizako Iron Manean

Jose txo Mujika betidanik kirolean aritua da, bai futbolean, atletismoan zein bizikletan. Duela 12 bat urte bizikleta eta korrika egitea konbinatzen dituen duatloiean hasi zen eta urte batzuk beranduago igerian egitea ere eskatzen duen triatloian. Hasieran igerian larri xamar

aritzen zen arren, hobetzen joan da eta azken urteotan beterano mailako Euskal Herriko zein estatuko txapelketak irabazi ditu. Urriaren hamarrean triatloieren maila gorena den Iron Man batean parte hartu zuen lehenengoz eta estatu mailako bigarren postua lortu zuen.

Zer moduzko esperientzia izan da Iron Man batean parte hartzea?


Atletismoan froga gogorrena maratoia den moduan, triatloian Iron Mana da: igerian 4 kilometro egin behar dira, bizikletan 180 kilometro eta ondoren maratoia. Sekula halakorik egin gabe nengoen eta presarik ere ez nuen, baina nirekin batera prestatzen diren lagun batzuek urtero egiten dute eta ni ere animatu ninduten urriaren 10ean Ibizan ospatu zen frogan parte hartzera. Froga baino hiru egun lehenago joan ginen bertako girora egokitzera eta igandeko froga goizeko 7etan hasi genuen. Igerian lau kilometroak ordu bete eta hamar minututan egin nituen, bizikletako 180 kilometroak 5 ordu eta 40 minututan eta ondoren maratoia hiru ordu eta erditan egin nuen.

Espero zenuen bezala aritu al zinen?

Nire helburua 11 ordu azpitik egitea zen eta 10 ordu eta erditan egin nuenez oso gustura bukatu nuen. Gainera honelako froga luzea egiten nuen lehenengo aldia zenez, ez nekien ziur bukatzerik izango nuen ere. Gogor entrenatu ondoren joan nintzen arren, entrenamenduan hain distantzia luzeak egiten ez direnez, ez dago ziur jakiterik gorputzak nola erantzungo duen. Espainia eta Portugalko txapelketa zen eta bigarrena amaitu nuen, nire mailan Iron Man hirugarren aldiz egin zuen kataluniar baten atzetik.

Zer nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Nire kontura hasi nintzen: egun batean korrika egin, hurrengoan txirrianduan... Gero IVEF egin eta Lazkaon zentru mediku bat zuten lagun batzuk ezagutu nituen eta ordutik beraiekin prestatzen naiz. Zentru honetan entrenatzaileak, medikuak eta dietistak dituztenez ondo zaintzen gaituzte. Alde handia dago norbere kontura ibiltzetik kontrolatuta ibiltzera errendimendu mailan. Egunean bi kirol



Ez da makala hamar ordu eta erditan jarraian kirolean aritzea!

egin ohi ditut: igeriketarekin batera korrika eta bizikleta tartekatzen ditut. Astean egun batetan deskantsua hartzen dut. Oraindik ere igeriketa kirolik ahulena dut, baina azken hamar urte hauetan dexente hobetu dut. Bizikletan, berriz, indartsu aritzen naiz; baina ezin da duzun guztia eman, gero korrikan egin beharra baitago.

Nondik ateratzen duzu hainbeste ordu entrenatzeko denbora?

Lantegian nenbilenean arratsaldeko bostetatik aurrera aritu behar izaten nintzen, baina orain suhiltzaile lanetan ari naiz eta errelebuka lan egiten dudanez denboraz hobeto nabil. Semea ere tarteka nirekin ibiltzen da eta berak ere aurten bi triatloi egin ditu bere mailan. Bestalde, abuztu aldean familiarekin joaten naiz asteburua pasatzera triatloi lehiaketak dauden lekuetara.



Jose txo beterano mailan bere aurretik geratu zen kataluniarrarekin berbetan

“Triatloizaleon ametsa egunen batean Hawaiko Iron Manean parte hartzea da”

Iron Man frogan parte hartu baino lehen, zein mailatan parte hartu duzu?

Lau maila daude, sprint, olinpikoa, erdi mailako distantzia eta distantzia luzea, Iron Man izenaz ezagutzen dena. Ni aurten arte erdibideko distantzietan ibili naiz eta aurten lehenengoz Iron Man bat egin dut. Hasi nintzenean 30 bat urte nituen eta senior mailan nenbilan. Hasierako triatloietan erdiko postuetan ailegatzen nintzen eta egun sailkapen orokorrean lehenengo hogeien artean sartzen naiz. Jada beterano mailan nago, 40 urtetik gorakoetan, eta maila honetan nagoenetik Euskal Herriko txapelketa urtero irabazi dut eta estatukoa azken bi urteotan, bai duatloian zein triatloian.

Etorkizunerako zer asmo dituzu?

Iron Man bat prestatzea oso gogorra da eta momentuz ez dut beste batean parte hartzeko asmorik. Kirola eginez oso gustura nabil eta ahal dudan bitartean hemengo lehiaketetan eta estatuko txapelketan parte hartzen jarraituko dut. Hala ere, lagun batzuk Suizan bi urtetik behin ospatzen den Iron Man batetan parte hartu nahi dute eta 2000 urtean azkenekoz antolatuko denez, beharbada ni ere animatuko naiz.

Hawaiko Iron Man entzutetsuan parte hartzea ez al duzu pentsatu?

Hawaiko frogan parte hartzea triatloizale guztion ametsa da, baina hemengo frogetan parte hartzeko inskripzioa ordaintzarekin nahikoa da eta hangoan, berriz, Lanzaroten egiten den klasifikazio frogan parte hartu beharra dago. Ibizan egin dudan denboraz klasifikatzea izango

nuela uste dut, baina Hawaira joatea oso garestia da. Bertara 15 egun lehenago joan beharko nintzateke girora moldatzeko eta aparte inskripzioa ordaindu, guztira milioi erdi inguru izango litzateke. Buruan dudan asmoa den arren, epe laburrean behintzat ez dut uste joaten saiatuko naizenik. Triatloian aritzeko sponsorrak lortzea oso zaila da eta onartua dut egunen batean joaten banaiz, neure poltsikotik ordaindu beharko dudala.

Gazteen artean triatloi zaletasunik ba al dago?

Entzun dut herrian gazteren batek triatloian hasteko asmoa duela eta ez dakiela nora jo, berak edo beste norbaitek honetan hasi nahi badu ni laguntzeko prest nago eta ahal dudan laguntza guztia eskainiko diot. Euskal Herri mailan gazte asko dabil eta Donostia zein Zarauzko frogetan jende ugari ibiltzen da.

URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA
Graduazioa-Audiometriak-Audiofonaen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea
Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA
☎ 943 72 57 75



Mari Carmen Mendia

Frantzia jaio zen arren, laster familia Urretxura bueltatu zen eta egun Zumarragan bizi da. Oso gaztetatik musika gustuko izan du, baina administrazioa ikasi eta Orbegozon lanean hasi zen. Hala ere, betidanik herriko koru ezberdinetan ezagutu dugu. Urretxuko parrokiako koruan hasi zen Don Santiagorekin, gero Goiargin sartu zen eta egun Zumarragako parrokiako koruan ere abesten du. 95-99 legegintzaldian zinegotzia izan zen Zumarragan eta bere esanetan familia guztiek izan beharko lukete kideren bat lan honetan udaletxeko lana gertutik ezagutzeko. Azken sei urteotan mertzerian ari da lanean.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Umetan erizaina, baina 14-15 urterekin jada abeslaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Eguraldi ona egiten badu Belokiko buelta eman, musika entzun eta irakurri.

-Bizitzeko toki bat?

Hemen oso gustura bizi naiz.

-Bakarka ala taldean abestea nahiago?

Taldean.

-Gustuko abeslaria?

Maria Callas eta Luciano Pavarotti.

-Donostiako Orfeoia ala Goiargi?

Ezin dira konparatu.

-Abestea ala abesten entzutea?

Abestea.

-Musika sakroa ala rantxerak?

Egoeraren arabera, norberaren barne egoerak ere eragina du.

-Zer moduzkoak dira egungo abeslari gazteak?

Kimetseko gazteek oso maila ona dute, baina oso mutil gutxi animatzen dira.

-Non eta noiz abestu duzu gustuen?

Leku guztietan oso gustura abestu dut, baina Urretxuko parrokia, Antio eta Mertzedariak oso leku egokiak dira.

-Lo egiteko pijama ala kamisoia?

Kamisoia, pijamak enbarazu egiten dit.

-Barruko erropa erosten, nortzuk dute gustu hobea: emakumeek ala gizonen?

Gero eta gizon gehiago etortzen dira dendara, bazen garaia! Gustu ona dute gainera.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagun on batekin.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beti beltzaranak gustatu zaizkit... baina egun jada

burusoilak egokiagoak dira niretzat.

-Egindako azken oparia?

Bilobari oparitutako puzzle bat.

-Eta jasotakoa?

Perfume bat.

-Data bat?

Hiruzpalau data garrantzitsu oroitzen ditut, denak uda ingurukoak eta batzuk oroimen onak ekartzen dizkirate eta beste batzuek txarrak.

-Mutil izen bat?

Aitor.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco eta Egunkaria. Batzuetan Gara ere bai.

-Gustuko telebista saioa?

Ez dut ia telebistarik ikusten; irratia, berriz, asko atsegin dut. Ramón Ibeasek goizetan Herri Irratian zuzentzen duen saioa asko atsegin dut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Telebistarik ia ikusten ez dudanez...

-Liburu bat.

José Luis San Pedroren "La sonrisa etrusca" eta "Garoa", euskaraz irakurri nuen lehenengoa.

-Filme bat.

"Memorias de Africa", askotan ikusi dut gainera.

-Abesti bat.

Olaizolaren "Haurtxoa seaskan", makina bat aldiz abestu dudana.

-Soinu bat.

Flautarena.

-Usain bat.

Mendiko lur bustiarena, belar moztu berriarena...

-Ukitzeko...

Giza azala.

-Janari bat.

Barazki menestra.


-Ura ala...

Ardo beltza.

*Eskeerrikasko Jose Mari, ezindako lan guztiagatik,
Zintzo-Mintzoko kide guztien partez bihotz-bihotzez.*




**Baserritarra, euskaltzalea
hitz eta ekintzen uztarri
seme zintzoa, senar jatorra
eta aita maitagarri.
Zure izaera ispilu eta
zure ekintzak oinarri
etorkizuna eraiki daigun
lagun eginaz elkarri
zure itzala izango dugu
babes eta bizigarri.**



Iñaki Murua

SUKALDE ERAKUSKE-

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39
ZUMARRAGA

Izerdi patsetan

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU

The logo for IKER, featuring the word "IKER" in a white, stylized, serif font with a red heart shape replacing the letter 'I', all set against a dark blue oval background.

IKER

Udala Enparantza, z/g

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Konturatuko zinen bezala, duela laupabost urte OTAMOTZ kaleratzen hasi ginenetik hona, aldaketa ugari izan du aldizkariak: orrialde gehiago, kalitate eta diseinu hobea, irakurle kopuru handiagoa, e.a.

Behin baino gehiagotan irakurle batek baino gehiagok galdetu izan digu aldizkaria etxeko buzoian jaso, eta ea ez al den ezer ordaindu behar. Ez pentsa horregatik ez duela gasturik.

Orainarte, herri-erakundeen dirulaguntzak, Zintzo-Mintzoko bazkideen kuotak eta publizitatea izan dira gastu horiek estaltzeko diru-iturriak.

Gaia aztertu ondoren, **borondatezko harpidetza** (suskripzioa) egiteko aukera eskaini nahi dizuegu OTAMOTZ jaso eta bazkide ez zaretenoi; beste modu batera esanda, zuk **nahi izanez gero** urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera izango duzu.

Zeuk aukeratu diru-kopurua; 1999 urtean hasiko ginатеke kobraketarekin. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

COLABORA CON LA REVISTA OTAMOTZ

Después de varios años trabajando día a día por la calidad de información en la revista OTAMOTZ, ya sois cerca de 2.000 personas quienes mensualmente recibís la misma en vuestras casas.

De cara al año 1999 os proponemos que colaboreis con una pequeña cuota **anual (suscripción voluntaria)**, al objeto de afrontar los gastos que la edición de la revista conlleva a la asociación Zintzo-Mintzo.

Dinos tú mismo/a la cantidad que quieras aportar, rellenando la ficha adjunta y entregándola en la asociación Zintzo-Mintzo (C/ Labeaga 12, bajo -Urretxu-, junto a la S.D. Goierri). También puedes ingresar tu aportación en la siguiente cta. cte: **KUTXA: 0010242378**.

OTAMOTZ ALDIZKARIA BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

1.000 pzta.

1.500 pzta.

2.000 pzta.

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria: